

HIZKUNTZEN KUDEAKETARI LOTUTAKO PRAKTIKA ONAK

JASOTZEKO FITXA

ERAKUNDEAREN DATUAK (eskaten diren 5 eremuak bete mesedez)

Datu hauek eta praktika onen fitxa betetzerakoan, baimena ematen duzu goian agertzen diren eremuak eta betetako praktika onen fitxa Euskaliteko webgunean argitaratzera, modu irekian zabaldu daitezten.

1. Erakundearen izena:	Fagor Arrasate S. Coop.
2. Sektorea:	Automobila
3. Langile kopurua:	565
4. Webgunea:	https://fagorarrasate.com/eu/
5. Erakundearen jardueraren deskribapena: (produktu eta zerbitzu nagusiak, merkatua, bezero motak...):	<p>Automobilaren sektorerako prentsa mekaniko eta hidraulikoak fabrikatu eta diseinatzen ditu, estanzazio osoen sistemak, transfer prentsak, prentsen linea robotizatuak, press hardening, eta forja; zeharkako mozketa, luzetarakoa, konbinatuak eta multiformatua; tentsio baxuko galbanizatu edo zapalak; pieza metalikoen konformazioaren sistema bereziak, bandaren perfilatua, perfilatu malgua, rotor-estator mozketen ekipoa, molde eta beste ekipoa asko.</p> <p>FAGOR ARRASATEn materialen konformazioari (altzairua, aluminioa eta konposatuak) aplikatutako ikerketa industrialeko proiektuak ere egiten ditugu. Gainera, transferizazioko manipulatzailen zein elementuen garapenean ere egiten dugu lan, robotikan, makinaren ekoizpena eta energia optimizatzeko funtzionalitate berrietan eta mantentze lanetan sistema ziberfisikoak eta datu analisiak integratuz. Era berean, ibilgailuak arintzera bideratutako ekoizpen prozesuen eremuan ikertzen dugu, baita lerro zuriko etxetresna elektrikoen kabineteetan hobekuntzak egiten ere, beste batzuen artean.</p> <p>AGOR ARRASATEk azken belaunaldiko teknologia duten ekoizpen eta zerbitzuko instalazioak ditu Europan, Amerikan eta Asian, eta instalazio horiek bezeroen premia zorrotzei erantzuten diete.</p>

Harremanetarako datuak

Eremu hauek hautazkoak dira. Datuak betetzen badituzu, webgunean azalduko dira bere horretan. Horrela, zure praktika interesgarria suertatu zaion erakundea zurekin harremanetan jarri ahal izango da:

Solaskidearen izen-abizenak:	Erika Mendibil
Helbide elektronikoa:	e.mendibil@fagorarrasate.com
Telefonoa:	943-719999

PRAKTIKA ONAREN AZALPEN LABURRA

1. Praktika onaren titulua:	Hizkuntza politika: hizkuntza aniztasunaren kudeaketa. Hizkuntzen politika (planta guztietarako.....ingelesa....bertako hizkuntza...)
2. Praktika onaren azalpena: Zer da? Zertan datza? Nondik dator? Zeintzuk dira onurak, lortu diren emaitzak?	2016an, erakundeak hizkuntza politika berri zuen. Horretarako lan talde berezi bat osatu zen, hainbat arduradun eta negozioetako buruekin. Bertan, hizkuntzaren politika izan beharrean, hizkuntzen kudeaketarako politika beharra azaleratu zen, Fagor Arrasatek dituen planta desberdinetan ere hizkuntzen kudeaketarako balio zezan (Alemania, Txina, AEB, etab.). Lanketa sakona egin ondoren, Euskara Batzordeak eta Kontseilu Errektoreak onartu zuten eta ordutik bi urtetik behin berrikusi eta eguneratzen da. EH herriko lantegietarako (Donostia, Zamudio, Markina eta Arrasate) euskara irizpideak argi edukitzeaz gain, Alemania, Txina, AEB eta hemendik aurrera sortu litezkeen balizko lantegietan ingelesak eta tokiko hizkuntzak izan beharreko lekua eta irizpideak zehazten dira.

1.- Hizkuntzen kudeaketarako eskuliburuko hainbat pasarte:

MISIOA



HIZKUNTZA ANIZTASUNAREN KUDEAKETA

Fagor Arrasaten, gero eta eleaniztunago den inguruagatik eta nazioartekotzaren erabakiaren ondorioz, hainbat hizkuntza erabiltzen ditugu. Hau litzateke gure misioa:

Fagor Arrasatek hizkuntzak modu iraunkorrean kudeatu nahi ditu, lekuan lekuko hizkuntzari tokia eginda eta ingelesa planten arteko hizkuntza izanik. Euskal Herriko lantegietako kasu konkretuan, euskaraz lan egiteko aukera bermatzea da helburua.

HELBURUAK:

- ❖ Bertako hizkuntzaren erabilera errespetatzea planta bakoitzean eta planten arteko komunikazio harremana erraztea.

JARRAIBIDE OROKORRAK

1. Hizkuntza paisaia eta irudi korporatiboa:

- ❖ Bertako hizkuntza lehenetsiko da eta plantako norabide orokorretan, ingelesa ere erabiliko da.

2. Kanpo harremanak:

- ❖ Bezeroak harreman komertzialerako, proiektu eta zerbitzuetarako aukeratu duen hizkuntzak, lehentasuna izango du.
- ❖ Kanpo intereseko alderdiekin, harremana bertako hizkuntzan edo ingelesez izango da, eta Euskal Herrian, euskararen erabilera bultzatuko da.

KUDEAKETA AURRERATUA
EUSKALIT
GESTIÓN AVANZADA



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA